ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2015eko abenduaren 4a, ostirala • 142 zk.

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

# OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 669/2015 Foru Araua, azaroaren 23koa, uztailaren 24ko 517/2014 Foru Agindua aldatzen duena, zeinak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 230 eredua onartzen baitu. Loteria eta apustu jakin batzuen sariaren gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako diru sarrerak; Sozietateen gaineko zerga: loteria eta apustu jakin batzuen sariaren gaineko atxikipen eta konturako diru sarrerak. Autolikidazioa**

Foru agindu honen bidez aldatu egiten da uztailaren 24ko 517/2014 Foru Aginduari atxikirik zihoan 230 eredua. Horiek horrela foru agindu honi erantsirik argitaratzen da, lanketa informatiko errazagoa ahalbidetze aldera eta gaizki-ulertuak saiheste aldera, haren zenbait laukitxo eta testu aldatzeko.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea uztailaren 24ko 517/2014 Foru Agindua, 230 eredua, hain zuzen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga onartzen duena: loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako diru sarrerak; sozietateen gaineko zerga: loteria eta apustu jakin batzuen sarien atxikipenak eta konturako diru sarrerak. Autolikidazioa.

Bat. Aldatu egiten da 230 eredua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzkoa: loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako diru sarrerak; sozietateen gaineko zerga: loteria eta apustu jakin batzuen sarien atxikipenak eta konturako diru sarrerak. Autolikidazioa, eredu hori uztailaren 24ko 517/2014 Foru Aginduaren eranskinean ageri zen eta orain foru agindu honi erantsirik ageri da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 23a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*
*JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasun zuzendaria*
*TERESA VIGURI MARTÍNEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

## Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga

**Loteria eta apustu jakin batzuen sariaren gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako diru sarrerak.**

## Sozietateen gaineko Zerga

**Loteria eta apustu jakin batzuen sariaren gaineko atxikipenak eta konturako diru sarrerak.**

**AUTOLIKIDAZIOA**

# 230

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

**Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

**AITORTZAILEA**

Loteriak, apustuak, zozketak edo jokoak antolatzen dituen entitatea: ematen dituen sariek atxikipena edo konturako sarrera dute

**SORTZAPENA**

Ekitaldia ........

Zergaldia ........ TR

901

Ordezko aitorpena ........ 1

Aitorpen osagarria ........ 2

**LIKIDAZIOA**

**I. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren pertsona fisikoei zergaldian ordaindutako sariak, sari horiek zergaren mende badaude eta ez badaude salbuetsita zergari buruzko foru arauaren 18. xedapen gehigarrian ezarritako karga berezitik.**

| | Hartzaileen kopurua | Ordaindutako sarien zenbatekoa | Atxikipen oinarrien batura | Atxikipenen zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|
| Diruzko sariak | 01 | 02 | 03 | 04 |
| | Hartzaileen kopurua | Ordaindutako sarien balioa | Konturako sarreren oinarrien batura | Konturako sarreren zenbatekoa |
| Gauzazko sariak | 05 | 06 | 07 | 08 |

**II. Sozietateen gaineko Zergaren peko pertsona juridiko eta entitateei zergaldian ordaindutako sariak, betiere atxikipenaren edo konturako sarreraren mende badaude zenbatekoa handiagoa dutelako ezenez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 18. xedapen gehigarrian ezarritako karga bereziaren salbuespenak determinatzen duena .**

| | Hartzaileen kopurua | Ordaindutako sarien zenbatekoa | Atxikipen oinarrien batura | Atxikipenen zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|
| Diruzko sariak | 09 | 10 | 11 | 12 |
| | Hartzaileen kopurua | Ordaindutako sarien balioa | Konturako sarreren oinarrien batura | Konturako sarreren zenbatekoa |
| Gauzazko sariak | 13 | 14 | 15 | 16 |

**III. Espainiaren lurraldean bizi ez eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren peko zergadun diren pertsona edo entitateei ordaindutako sariak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 7. xedapen gehigarrian ezarritako karga bereziaren pean daudenak salbuetsita egon gabe.**

| | Hartzaileen kopurua | Ordaindutako sarien zenbatekoa | Atxikipen oinarrien batura | Atxikipenen zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|
| Diruzko sariak | 17 | 18 | 19 | 20 |
| | Hartzaileen kopurua | Ordaindutako sarien balioa | Konturako sarreren oinarrien batura | Konturako sarreren zenbatekoa |
| Gauzazko sariak | 21 | 22 | 23 | 24 |

**Likidazioak, guztira:** Atxikipenen eta konturako sarreren batura (04 + 08 + 12 + 16 + 20 + 24) ........ 25

Kentzekoa (soilik autolikidazio ordezkoa bada):

Kontzeptu, ekitaldi eta epe berberen arabera aurkeztutako aurreko likidazioak direla-eta sartu beharreko emaitzak ........ 26

**Sartu beharreko emaitza ( 25 - 26 )** ........ 30

**ORDEZKOA / OSAGARRIA**

Autolikidazio ordezkoaren edo osagarriaren kasuan, idatzi hemen aurreko autolikidazioaren **aurkezpenaren erregistro zenbakia:**

**DIRU SARRERA**

Data ........

Sinadura

Ordainketa gutuna

Zigilua eta sinadura | Entitatearen gakoa | Data | Zenbatekoa

**NEGATIBOA**

Aitorpen **negatiboa** (30. laukian zero ageri bada, "X" jarriko da) ........

RE. 15/209



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2015.12.04 06:29:19 Z